



2011-2012

### A 3. PROA PLANA: Indartze, Orientazio eta Laguntza Programa.

#### *Deialdiaren xedea*

Ikasturte honetan jadanik programan parte hartu duten eta 2011-2012 ikasturtean parte hartzen jarraitzeko eskaera egin duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen programa berritzea, baldin eta Berritzeguneko balorazio-txostena positiboa izan bada.

Ikastetxeren batean programak aurreikusten dituen helburuak lortuzat emanez gero, PROA Laguntza-plana programan sartzea proposatu ahal izango zaio ikastetxe horri.

#### *Esleipena*

Programa lantzen den ikasturteetan zehar, eta ebaluazioa positiboa izan bada, ikastetxeek baliabide gehigarriak jasoko dituzte. Baliabide horiek izango dira, gutxienez, irakasle batentzat lanaldi osoko lana eta DBHko taldeei eskolaz kanpoko orduetan laguntzeko begiraleak kontratatzeko laguntzak. Gainera, beste baliabide ekonomiko batzuk esleitu dakizkieke hainbat jarduera-ildoen ondorioz sortutako funtzionamendu-gastuei aurre egiteko.

#### *Programa lantzeko jarraibideak*

Parte hartzen duten ikastetxeetako eskola-arrakastaren indizea hobetzeko, programak bi proposamen egiten ditu: batetik, aldaketa orokor bat egitea ikastetxeen eta ikuspuntu inklusiboa duten ikasketen antolaketan eta funtzionamenduan; eta, bestetik, ikasle-talde batzuei berariazko laguntza ematea.

- Ikastetxeak gai dira ikasle guztien eta, bereziki, eragozpen sozio-hezitzaileak dituztenen emaitzak hobetzeko. Ikerketa guztien arabera, batez ere hiru alorrek eragiten diote gaitasun horri, eta Programa honen bidez horietan esku hartu nahi da. Hiru alor horiek ondorengoak dira:

Ikastetxea bera: aldaketak eginez, besteak beste, antolaketan, funtzionamenduan eta irakasleen koordinazioan. Baita, ikasgeletan zein ikasgeletatik kanpo, ikasle guztien hezkuntza-erantzun inklusiboa antolatzeko dituen prozedurak eta baliabideak aldatuz ere.

Familiak: batez ere ikastetxearekin duten harremanari, ikastetxean duten parte-hartzeari, eta hezkuntza-prozesuan duten inplikazioari dagokionez.

Ikastetxearen ingurua: eskolaz kanpoko jarduera hezitzaileen eskaintza handituz, hezkuntza-arloko proposamenetan elkarrekin parte hartuz, ikasleekin esku hartzen duten eragileen arteko koordinazioa sustatuz, sarean lan egitea bultzatuz...

- Programa honen esparruan egindako jarduerak ikastetxeko jarduera orokorraren parte izan behar dute. Programa honen burua zuzendaritza-taldea da eta koordinatzailea zuzendaritza-taldeak izendatutako pertsona da. Gainera, koordinatzaileak jarraipen sistematikoa du.
- Zuzendaritza-taldeak izendatutako koordinatzailearen funtzioak honakoak dira:
  - Programa diseinatzen, martxan jartzen, lantzen eta programaren jarraipena eta ebaluazioa (barrukoa eta kanpoko) egiten laguntzea.
  - Ikasgela barruan eta kanpoan irakasleei laguntza ematea eta, besteak beste, aniztasunari erantzuna hobetzeko estrategia inklusiboak eta metodologia-aldaketak martxan jartzea.
  - Prestakuntza antolatzeko zuzendaritza-taldearekin lan egitea.
  - Sailak antolatutako koordinazio- eta/edo prestakuntza-saioretara joatea.



- Ikasle guztien eskola-itxaropena hobetzeko, batez ere DBHko lehenengo mailatan, irakasgai instrumentalak orokorrean, lanaren antolaketa eta ikasteko ohiturak hartzea indartu behar dira.
- Ikasle guztiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baldintza hoberenetan egin dezaten, beharrezkoa da dituzten itxaropenak hobetzeko lan egitea: ikasleek haien gaitasunez espero dutena, ikastetxeek ikasleek espero dutena, eta familiak seme-alabez espero dutena.
- Esku-hartzeak ikasgela heterogeneotan egingo dira, ikasle guztien interakzioa gehiago eta hobeto indartzen baitute, zailtasunen arabera taldekatuko bagenitu baino askoz ere gehiago. Gainera, esku-hartzeei esker, ikasle guztien eskola-erantzukizunak hobetzeaz gain, harreman solidarioagoak indartzen dira, bizikidetzak hobetzen da eta etiketak gaintzen dira.
- Ikasgela barruko interakzioak, ikaskuntzaren oinarria diren aldetik, gehitzeko, dibertsifikatzeko eta hobetzeko proposatu behar diren jarduerak eta metodologiek, adibidez, berdinen arteko laguntza eta pertsona heldu gehiagok ikasgelan parte-hartzea bultzatu behar dute.
- Programa sustatzeko nahitaezkoa da irakasleen arteko koordinazioa, bertikala zein horizontala.
- Familiak hezkuntza-prozesuan ahal bezain beste inplikatzeko garrantzitsua da, baita ikastetxeen eta familien arteko harremana hobetzea ere, ikastetxeko hainbat alorretan eta nahi duten prestakuntza-jardueretan parte hartuz.
- Heldu nahi diren arazoak, batez ere, Lehen Hezkuntzan sortzen dira, eta horretan esku hartu behar da arazo horiek saihesteko. Programa honetako jarduerak, batez ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zentratzen dira. Hala ere, beranduago Bigarren Hezkuntzako ikastetxera joango diren Lehen Hezkuntzako ikasleekin batera jarduerak egitea proposatzen da.
- PROA lantzeko, ikastetxeak barruko prestakuntza antolatu behar du eta Administrazioak ezartzen dituen prestakuntza-jardueretan parte hartzea erraztu behar dio, gutxienez, programako koordinatzaileari.
- Programa antolatzerakoan, eta hiru urtetan zehar landu daitekeen proiektu orokor bat dela ahaztu gabe, zenbait *jarduera-ildo* har daitezke kontuan. Ondoren, eta adibide gisa, irakasleen inplikazio-maila desberdina eskatzen duten jarduera-ildo batzuk aipatzen dira.

#### Arreta zuzena ikasleei:

- Aniztasunari arreta emateko plana
- Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzea
- Tutoretzak (banaka, taldean)
- Pedagogia-kontratuak
- Plan pertsonalizatuak
- Tutorepeko eskola-liburutegia
- Hizkuntza-tailerrak
- Talde interaktiboak
- Hizketaldi literarioak
- Bi irakasle ikasgelako
- Alorkako antolaketa
- Diziplina arteko proiektuak
- Bizikidetzak-proiektua
- Hezkuntza-errefortzu osagarria
- ....

#### Familiekin esku-hartzea:

- Familiekin elkarlana
- Familiaren parte-hartzea eta prestakuntza



- Batzorde mistoen antolaketa
- Familiekin hizketaldi literarioak
- Bizikidetza-proiektua
- ....

Inguruarekin harremana:

- Eskolaz kanpoko jarduera-tailerrak
- Eskola-absentismoa
- Bitartekari sozio-hezitzaileekin, eta ikasleekin eta/edo horien familiekin esku hartzen duten beste eragileekin eta zerbitzuekin koordinazioa
- Boluntarioekin lana
- Mahai sozio-hezitzaileak
- ....

***Berriazko baldintza***

Ikastetxe batek Programan parte hartu nahi badu, aipatutako hiru alorretan esku hartu behako du: ikastetxea, familiak eta ingurua. Hau da, ikastetxeak hitzeman behar du erabakiak hartuko dituela eta ikastetxearen antolaketan eta funtzionamenduan ondorengo puntuak kontuan hartzen dituzten aldaketak egingo dituela:

- Ikuspuntu inklusiboetan oinarrituta, aniztasunari arreta emateko estrategiak aldatzea
- Irakasleen koordinazio horizontalerako prozedura berriak ezartzea
- Familiekin harremana izateko ikuspuntu berriak erabiltzea
- Inguruarekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea

***Berriazko betebeharrak***

Aukeratutako ikastetxeek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Laguntzan parte hartuko duten ikasleen familien baimena idatziz biltzea.
- b) Zonaldeko Berritzegunera 2. Eranskina behar bezala beteta bidaltzea urriaren 30a baino lehen.
- c) Ikastetxeak Hezkuntza Ministerioak egingo duen kanpoko ebaluazio-prozesuan parte hartzea.

**ADI:** Programak bat etorri behar du deialdiko jarraibide orokorretan zehaztutako baldintzekin (bigarren jarraibidea), betebeharrekin (zazpigarren jarraibidea), eta jarraipenarekin eta ebaluazioarekin (bederatzigarren jarraibidea).



## A – 3. 1. ERANSKINA

Ikastetxea: ..... Kodea: .....

Udalerrria: ..... Lurraldea: .....

Arestian aipatutako ikastetxeko zuzendariak ondoren adierazitako talde- eta begirale-kopurua eskatzen du PROA Programa-2011-2012 ikasterterako laguntza dinamizatzeko, erantsitako datu orokorren aurreikuspenaren arabera.

Talde-kopurua:

Begirale-kopurua:

## 1.- IKASLEEN DATUAK:

DBHko 1. mailako ikasgela-kopurua	
DBHko 1. mailako ikasle-kopurua, guztira	
Ikasketa-arazoak dituen DBHko 1. mailako ikasle-kopurua	
Dena gainditu duen DBHko 1. mailako ikasle-kopurua	
1 edo 2 gutxiegi dituen DBHko 1. mailako ikasle-kopurua	
3 gutxiegi edo gehiago dituen DBHko 1. mailako ikasle-kopurua	

DBH 2ko ikasgela-kopurua	
DBHko 2. mailako ikasle-kopurua	
Ikasketa-arazoak dituen DBHko 2. mailako ikasle-kopurua	
Dena gainditu duen DBHko 2. mailako ikasle-kopurua	
1 edo 2 gutxiegi dituen DBHko 2. mailako ikasle-kopurua	
3 gutxiegi edo gehiago dituen DBHko 2. mailako ikasle-kopurua	

DBHko 3. mailako ikasgela-kopurua	
DBHko 3. mailako ikasle-kopurua	
Ikasketa-arazoak dituen DBHko 3. mailako ikasle-kopurua	
Dena gainditu duen DBHko 3. mailako ikasle-kopurua	
1 edo 2 gutxiegi dituen DBHko 3. mailako ikasle-kopurua	
3 gutxiegi edo gehiago dituen DBHko 3. mailako ikasle-kopurua	

DBH 4ko ikasgela-kopurua	
DBHko 4. mailako ikasle-kopurua	
Ikasketa-arazoak dituen DBHko 4. mailako ikasle-kopurua	
Dena gainditu duen DBHko 4. mailako ikasle-kopurua	
1 edo 2 gutxiegi dituen DBHko 4. mailako ikasle-kopurua	
3 gutxiegi edo gehiago dituen DBHko 4. mailako ikasle-kopurua	

Ikastetxeko ikasgela-kopurua guztira	
Ikastetxeko ikasle-kopurua guztira	
Ikasle atzerritarren kopurua DBHn/guztira	
Bekadun ikasleen ehunekoa DBHn/guztira	

## 2.- KOORDINATZAILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: .....

Irakasgaia, Kargua: .....

Behin betiko destinoa ikastetxean (bai-ez): .... DBH 1. edo 2. maila DBH 3. edo 4. maila

.....  
Programan ematen dituen orduak: .....



Ikastetxeko zuzendariaren sinadura eta zigilua

**A – 3. 2. ERANSKINA****ESKOLA-LAGUNTZA (INDARTZE, ORIENTAZIO ETA LAGUNTZA PROGRAMA)**

(Zonaldeko Berritzegunera urriaren 30a baino lehen bidali behar da)

Ikastetxea: .....Kodea: .....

Udalerrria: .....Lurraldea: .....

## DATU OROKORRAK

DBHko 1. mailako ikasgela-kopurua	
DBHko 1. mailako ikasle-kopurua	
DBHko 2. mailako ikasgela-kopurua	
DBHko 2. mailako ikasle-kopurua	
DBHko 3. mailako ikasgela-kopurua	
DBHko 3. mailako ikasle-kopurua	
DBHko 4. mailako ikasgela-kopurua	
DBHko 4. mailako ikasle-kopurua	

Programan parte hartzen duen DBHko 1. mailako ikasle-kopurua	
Eragozpen sozio-hezitzailezik ez duen eta programan parte hartzen duen DBHko 1. mailako ikasle-kopurua	
Programan parte hartzen duen DBHko 2. mailako ikasle-kopurua	
Eragozpen sozio-hezitzailezik ez duen eta programan parte hartzen duen DBHko 2. mailako ikasle-kopurua	
Programan parte hartzen duen DBHko 3. mailako ikasle-kopurua	
Eragozpen sozio-hezitzailezik ez duen eta programan parte hartzen duen DBHko 3. mailako ikasle-kopurua	
Programan parte hartzen duen DBHko 4. mailako ikasle-kopurua	
Desabantaila sozio-hezitzailezik ez duen eta programan parte hartzen duen DBHko 4. mailako ikasle-kopurua	

## PROGRAMA LANTZEN DUTEN BEGIRALEAK

Izen-abizenak	Programan ematen dituen orduak



## PROGRAMAKO IKASLEAK

Taldea ____ (talde bakoitzeko bat)				
Izen-abizenak	Jaiotza-urtea	Maila eta taldea	Familiaren konpromiso formala dago	Oharrak
1.-				
2.-				
3.-				
4.-				
5.-				
6.-				
7.-				
8.-				
9.-				
10.-				
11.-				
12.-				
Taldeko ikasle-kopurua guztira, eskola-zailtasunak ez dituzten ikasleak barne				

## KANPOKO LAGUNTZAK: GURASO-ELKARTEA, UDALA, GKEak, ETAB.

Entitatea	Inplikaturako pertsona	Programan ematen dituen orduak	Zer jardueratan kolaboratzen du?

.....(e)n, 2011ko .....(a)ren .....(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendariaren sinadura eta zigilua